

Literatura ▸ LIBURUAK

Beharrezko izatearen beharra

MIKEL AYERBE

Stefan Zweig-en *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* (1929) kontakizunaren hasieran, Henriette emakume ezkonduak senarra eta bi alabak uzten ditu ezagutu berri duen gazte batekin ihes egiteko. Ihes hori dela eta, «dagunarte zeharo burgesa» osatzen duten ostatuko bezeroen artean eztabaida sutsu bat pizten da. Tartean da kontakizuneko narratzailea. Eta tartean da Mrs. C. pertsonaia ere. Egun batzuk beranduago, Mrs. C.k aitormen bat egingo dio narratzaileari. Bere buruari ere nekez kontatzen diezaiokeen aitormen bat. Hogeita lau ordu irauten duen gertakizun baten aitormena.

Jada «ile zuriko dama zahar ingeles dotorea» den Mrs. C. berrogeita bi urte zituen egun gatazkatsu hartara itzultzen da. Egun horretan, hilda dagoen bere senarra gogora ekartzen dion Kasino batean sartzen da emakumea eta jokoan ari den gizon gazte baten eskuei begira gelditzen da. Izoztuta. Esku horiek erakarmen saihes-tezina sortuko dute emakumearenengan. Bat-batean, gizon gaztea

jokoan dena galtzearekin batera burua galtzekotan dagoela ikusirik, bera salbatzeko behar adierazkaitza sentitzen du. Hogeita lau ordu iraungo dituen behar asezi-na.

Edorta Mataukok itzultzen duen Zweig idazle oparoaren bigarren liburua da, duela bi urte argitaraturiko *Emakume ezezagun baten gutuna* (1927) itzulpenaren ondotik. Gainera, askok idazle austriarraren nobela biribilentzat hartzen duten *Xake nobela* (1941) ere irakur daiteke euskaraz, Xabier Mendiguren Bereziartu itzultzailearen eskutik. Edozeinetan, bizitza baldintzatzen duten egunen kontaketa sustraiaietatik heltzen badakiela erakusten du Zweig-ek, pertsonaien azterketa psikologiko zehatzetik abiatuta irakurlea gogoeta egitera behartuz. Sarritan, erabat muturrera eramandako eta itxuraz mundutik aparteko diruditen pertsonaia ikipiritu librearen aldarri bilakatzen dira, garai hartako arau zurrunkin garaituz. Bere idazki gehienetan bezala, *Hogeita lau ordu emakume baten bizitza* hone-tan ere Zweig-i parte izatea tokatu



■ 'Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan'

Egilea: Stefan Zweig. **Itzultzailea:** Eduard Matauko. **Argitaletxea:** Igela. **Urtea:** 2007.


zitzaion burgesiaren ohitura her-tsiak ezbaian jartzen dira. Mr. C-ren hitzak dira: «Hamar ordutan errealairetateki jasotako esperien-

tzia askozaz handiagoa izan zen berrogei urteko bizimodu burge-sak emandakoa baino».

Liburuko pasarte batzuk ilea lazten dutela esango nuke, kontatzen den gertaera ezdeusena ere halako misterio eta erru kutsuz narratzen baita. Kontaketa beste hainbat elementuk giro barnerakoa sortzen laguntzen diote irakurleareari: txikikeriei errepara-tzeko ahalmena (eskuen deskri-bapen psikologiko bikaina kasu); gertaerak hitzez nekez azaldu, baina aitormena behar bezala egi-teko beharraren emakumearen erretorika hanpatua (kontatu arte ez baitu onartuko gertaturikoa); jokoak eta apustuek eragiten duten ezinegona (eta galbidea); maitasun grinak eta bulkadak...

Edonola ere, orri gutxitan gar-tzen den kontaketa honek irakur-lea hasieratik harrapatzen du. Liburuko lehenengo paragrafoak disimuluz biltzen du etorriko den guztiaren berri, bizitza mugatzen duten neurritz gainekeo grinak gutxien espero direnean iristen baitira. Irakurtzea ere aukeratzea delako. Eta nahiz eta liburu honek ez dion inori bizitza baldintzatuko (edo batek daki), Igela argitaletxe-ko kalitatearen bermeari erraz eusten diola jabetuko da irakur-lea.


>> mayerbe@berria.info



■ 'Desterruen artekoak'

Egilea: Jose Inazio Arana. **Apailatzailea:** Luis Haranburu Altuna. **Argitaletxea:** Hiria. **Urtea:** 2007.

Poetaren desterruak izenburua ezarri dio Luis Haranburu Altuna Jose Inazio Aranaren poemen antologia honen hitzaurre luzeari. Desterru politikoez gain, bere ordenearen baitan ere deserria jasan zuen Aranak, baina ez zaigu gai horietaz idatzitako haren poemarik iritsi. «Agian ez zuen bere ganbara poetikoa osoro libratu», dio Haranburu Altunak hitzaurrean.



■ 'Aldaketa klimatikoak badator'

Egileak: Joseba Etxebarria eta Unai Martinez Lizardukoa. **Argitaletxea:** Gaik. **Urtea:** 2007.

Klima aldaketaren gaia ikuspegi askotatik jorratzen du liburua: *Meteorologiaren historia eta klima, Eguzki energia eta klimaren baldintza oinarrikoak, Berotegi efektua eta iragarpenak, Zerbait larria ari zaio gertatzen klimari, Klima suntsi dezaketen bi faktore, Orain zer dugu eta zer datorkigu, Karbono dioxidioa lurpean biltegitratzea...*



■ 'San Antonio Maria Claret misiolari apostolikoa'

Egilea: Emilio Vicente Mateu. **Argitaletxea:** Publicaciones Claretianas. **Itzultzailea:** Edurne Aizpuru (Bakun S.L.). **Urtea:** 2007.

Antonio Maria Claret Sallenten (Herrialde Katalanak) jaio zen, 1807an, eta 1870ean hil, Fontfroiden (Frantzia). Claret berak idatzitako autobiografiaren egokitzapena egin du Emilio Vicente Mateuk, Claret jaioztaren bigarren mendeurrena gogoratzeke.

■ Haur eta gazte literatura

IÑAKI AGIRREZABAL >> iagirrezabal@berria.info

Sortzera jolasten

Dorre batean bizi den neskatoari eta hura handik ateratzeko gertatu behar duenari buruzko istorio ezagunaren beste bertsio bat da. Baina ez hori bakarrik: egileak horrelako istorio bat paperera eramaten duen prozesua ere bada. Jolas polita sortzen du horrek. Istorio ilustratu bat egiteko ideia eta inspirazioak nondik sor daitezkeen: nola bere burutik irteten diren adina ideia aurkituko dituen ingurura ondo begiratu, eta nola azkene-rako berak sortutako pertsonaiekin beraiek emango dien istorioarekin jarraitzeko bidea. Ideia hau horrela izanda, ezinbestekoa zen ilustrazioek garrantzi handia hartzea, eta ederki betetzen dute kontaketa osatzeko lana. Pertsonaien animoaren arabera koloreak eta tonuak aldatu egiten dira, sortzailearen eta sortutako istorioaren arteko loturak erakusteko. Denbora askoan eta askotan begiratzu gozatzeko marrazkiak dira. Eta behin istorioa jakinda, marrazkien bidez bakarrik jarraitzeko modukoa da, norberak detaile berriak erantsiz. Eskertzekoa da hiru eurotan izatea eskuragai hain liburu dotorea.



■ 'Dorre luze iluna'

Egilea: Françoise Guillaumont. **Ilustrazioak:** Philippe Goossens. **Itzultzailea:** Elena Touyarou-Phagaburu. **Argitaletxea:** Ilkas.



■ 'Gerlari handia'

Egilea: Pello Añorga. **Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena. **Argitaletxea:** Pamiela.



■ 'Oz-eko aztia'

Egilea: Jasone Turumbay. **Ilustratzailea:** Conchi Mañón. **Argitaletxea:** Erein.

Norbera etsai

Edozein lekutan aurkariak bilatzen aritzen denarentzat, bilaketa bera bihurtzen da aurkarietako bat. Obsesioa. Eta konturatzerako, bere buruarekin borrokatu beharko du aurkari hori gainditzeko. Borrokaldietan zentzugabekoa dirudiena beharrezkoa gertatzen da obsesio hau gainditzeko bidean, nork bere buruaz barre puska bat eginez. Kontaketa hone-tan bere itzalarekin beldurtu eta borroka egingo duen gerlari handiaren istorioa osatu dute egileek. Ilustrazioek garrantzi handia dute kontaketa. Orrialde osoa betetzen dute marrazkiek, letrak sartzeko behar adina toki zurian utzita, pasarteak ondo irakurtzeko. Pasarte askotan badirudi marrazkia lehenago eginga dagoela, eta pasarteak marrazki hauen gainean idatzi direla. Horrela, bata bestea ondo osatzea lortu dute. Kontaketaekin zerikusi handirik ez duena marrazkietan zurian utzita dago, pertsonaia eta elementuak nabarmenduz. Orrialde-en zatirik handienak zurian egoteak sortzen duen argitasunak ez die protagonistak diren itzalei indarririk kentzen.

Liburutik agertokira

Oz-eko aztien istorioa antzerki testu gisa argitaratu du liburu honetan Erein argitaletxeak, Jasone Turumbayk egokiturik. Istorioa ezaguna da oso, beraz, oso etxekoak egiten zaizkigu L. Frank Baumek asmatutako Txorimaloaren, Dorisen edota Latorrizko Gizonaren arteko elkarrizketak eta istorioaren garapena. Liburu honen ekarpenik garrantzitsuenak antzerki testua izatea da. Hots, irakurri ez ezik antzeztu ere egin daitekeen istorioa esku-jartzea irakurleei. Egileak ez du detaile bat bera ere ahaztu, eta pertsonaia bakoitzaren jantziak nolakoak izan behar duten, atrezorako zer behar den nahiz nolako dekoratuak behar diren zehatz-mehatz zehaztu ditu. Finean, taldean antzerkia prestatzeko gidoi proposa da. Liburuko ilustrazio bakanak, ordea, ez dute pista askorik ematen, eta istorioaren osagarri baino gehiago hizkiz beteriko orrialdeak arintzeko direla dirudite. Laguntasunari nahiz konfiantzari buruzko antzeztan erraz eta polita osatzeko aukera ematen du liburuak.